



**HAL**  
open science

## Helduak euskalduntzeko mintzamen-ariketak

Aitor Ortiz de Pinedo

► **To cite this version:**

Aitor Ortiz de Pinedo. Helduak euskalduntzeko mintzamen-ariketak. HIZPIDE, 2011, 78, pp.76-92. <halshs-05115459>

**HAL Id: halshs-05115459**

**<https://shs.hal.science/halshs-05115459v1>**

Submitted on 17 Nov 2025

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire HAL, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.



Distributed under a Creative Commons CC BY-NC-SA 4.0 - Attribution - Non-commercial use - ShareAlike - International License

# **Helduak euskalduntzeko mintzamen-ariketak**

*Aitor Ortiz de Pinedo*

*Artikulu honetan mintzamen-ariketa komunikatiboak eskaintzen dira. Helduekin lan egiteko dira. Gaiak aldatuta ariketa mota hauek ikasle gazteagoentzat ere balio lezaketek. Ariketa ereduak dira, irakasleak bere beharretara egokitu ditzakeenak. Adibidez, hurrenkeratze- edo zerrendatze-jardueretan umearen mundutik hurbil dauden itemak hurrenkeratu daitezke: janariak, irudi bizietako pertsonaiak, kirolariak, jolasak, kantanak..., asmakizun zientifikoak hurrenkeratu ordez. Hurrenkeratzeko irizpideak aldatzeko aukera ere badago.*

*Gaia ere alda liteke ikasteko arloaren arabera, dela historiako, ingurumeneko, musika eta abarreko edukiak erabilia murgiltze-eredu batean (CLIL). Itemak hurrenkeratzeko jarduerak daude; rol-jokoak egiteko jarduerak daude; produktuak ekoizteko jarduerak daude: eztabaidak, plangintzak...*

## **Azalpena**

Asmoa: goi-mailetarako ariketa-bildumatxo bat egitea da. Ariketa-tipoak izango dira, gero, irakasleak, moldatuko dituenak bere mailen arabera.

Goiko maila hauetan egingarri eta egokienak iruditu zaizkigunak hautatu eta itzuli egin ditugu.

Trebetasunak: mintzamina lantzeari garrantzi berezia emango diogu; baita talde-lanari ere.

## **Mintzamina Lantzeko Ariketak**

Sarrera:

Mintzamen-klasea arrakastatsua izateko oharrak. Ikasleak prestatu: badira teknikak mintzagai baten inguruan aurretiaz prestatzeko:

- ikus-entzunezkoak erabiltzea.
- bestelako orientabideak emanez: testu laburra, galdeketa, baieztapenak gai batez, bideo-atal bat ... Kontua da luzezia ez izatea.
- Hiztegia lantzeko ariketak: hitzak sailkatzea, hitzak irudiekin lotzea, hitzak ikastea zerrendatik ...

Ikasleek argibideen bitartez, modu zehatzean jakin beharko dute eskatzen zaiena.

Ikasleak motibatzen dituzten gaiak landuko ditugu, adibidez: familia bizitza, kirola, aldaketa, oporrak, plazerak, dirua, zeinek bere esperientziak, ametsak, elikadura, osasuna ...

Jarraipena dute batzuetan ariketa hauek.

## **1. Jariotasuna Lantzeko ariketak**

### **1.A) Ariketa: Familia-bizitza**

MAILAK: erdikoetatik aurrera

IRAUPENA: 30 minutu

HELBURUA: Ikasleek iritziak partekatzea

PRESTAKUNTZA: atazarako orria prestatu eta fotokopiak egitea klaserako

GAIA: harremanak/familia.

#### *ATAZA EGITEKO ORRIALDEA: FAMILIA-BIZITZA*

Hirunaka edo launaka lan egin. Hurrengo adierazpenetan, zeintzuekin zaude ados eta zeintzuekin ez? Taldeko gainerakoekin eztabaidatu. Ados ez zauden adierazpenak moldatu, taldearen iritziak islatzen dituzten arte. Prest egon zure eztabaida irakasleari jakinarazteko.

1. Seme-alabek, gurasoen etxetik, ezkondu ondoren bakarrik alde egingo dute.
2. Edadetuak zahar-etxeetan egotera bultzatu behar dira, eta ez familiarekin egotera.
3. Jendeak ez lituzke izan behar bi ume baino gehiago.
4. Seme-alabak, beti, euren gurasoekin esaneko izan behar dute.
5. Ezkontzerakoan, beti aholkua eskatu behar diezu gurasoei.
6. Seme-alabek, euren gurasoei, errenta ordaindu behar liekete lana lortzen dutenez geroztik.
7. Beti egon beharko zinateke prest familiako kide bati laguntza eskaintzeko.
8. Familiako kideek ingurune berean bizi beharko liriateke elkarri bisita erraz egiteko moduan.
9. Orain, familia bizitza, munta txikiagokoa da, antzina baino.

PROZEDURA:

1. Banatu ikasle bakoitzari "Ataza egiteko orrialdea".
2. Ikasleek, talde txikietan, ataza orrialdea eztabaidatuko dute.
3. 20 minutugarrenera, feed-back-a. Taldean izan den adostasun edo desadostasuna azalduko dute; adierazpenak nola berridatzi dituzten agertuko dute.

## 1.B) Ariketa: Emozioak/sentimenduak

MAILAK: erdikoetatik goi-erdikoetara.

IRAUPENA: 35 min.

HELBURUA: ikasleek elkarrekin euren emozioez hitz egitea.

PRESTAKUNTZA: Atazarako orrialdea prestatu. Ahal izanez gero, hiztegiak erabili klasean.

<b>ATAZARAKO ORRIALDEA: EMOZIOAK</b>	<b>Azpiko hitz hauen guztien artean zeintzuk zaitzizu ezagunak?</b>
Poza	Harrotasuna
Beldurra	Etsipena
Gozamena	Gogoeta egitea
Gorrotoa	Haserrea
Adiskidetasuna	Nazka
Atsekabea	Harridura
Harrokeria	Onarpena
Tristezia	Erasokortasuna
Lotsa	Apatia
Garaipena	Larrimina
Grina	Nahasmena
Izua	
Kezka	
Oneratzea	
Maitasuna	
Errukia	
Gupida	
Damua	
Kemena	
Egonarria	
Ausardia	
Nekea	
Sosegua	
Amorrua	
Asperdura	
Gosea	
Jakin-mina	
Interesa	
Damua	
Sofrimentua	
Begikotasuna	
Goibeltasuna	
Bekaizkeria	
Barkamena	
Eskerrona	
Erruduntasuna	
Itxaropena	
Etsaitasuna	
Herrimina	

*Denak emozioak deskribatzeko erabili ohi dira. Ikaskide batekin argitu esanahiak. Hiztegiak erabili behar izanez gero.*

*Hurrengo: gogoratu itzazu zure lehen 8 urteetako ahalik eta pasadizorik gehien.*

*Hiru multzotan sailkatu: atseginak, desatseginak eta neutroak. Goiko zerrendako hitz zenbait erabili. Zure ikaskideari, haurtzaroko bi pasadizo kontatu: bata atsegina eta, bestea, desatsegina.*

PROZEDURA:

1. Egunkarietako argazkietako pertsonaien emozioak identifikatu: adibi-dez, lurrikara batekoena, tenis-txapeldun batena ...
2. Utzi ikasleei 15 min atazaren gainerakoa egin dezaten
3. Bukatzeko, launaka edo seinaka jarri, elkarretaratzea egin dezaten (solasaldia/ discussion)

### 1.C) Ariketa. Zenbateko adorea edo energia duzu?

MAILAK: erdikoetatik aurrera

IRAUPENA: 40 min

HELBURUA: ikasleek euren bizitza-estiloa aztertzea

PRESTAKUNTZA: ataza egiteko orrialdea fotokopiatu

GAIA: osasuna/aisia

**ataza: galdeketa hau bete bakarka:**

ZENBATEKO ADOREA DUZU?	maiz	batzuetan	gutxitan edo inoiz ez
1. Nekatu antzean jaikitzen ohi zara?			
2. Arratsaldean kaleratzeko nekatuegi al zaude?			
3. Lokartzen al zara eserlekuan telebistari begira edo liburua irakurtzen zaudela?			
4. Adore bultzakada baten bila egiten duzu erre, kafea edan edo gozoren bat jan.			
5. Eguneroko zereginek (erosketak, etxeko lanak, etxea artatzeak, baratzezaintzak...) besoak eta hankak nekarazten dizkizute?			
6. Nekeak zure pentsatzeko eta kontzentratzeko ahalmenak murrizten al ditu?			
7. Unadura edo nekeak zure lagun edo familiakoekiko haserrekortu egiten al zaitu?			
8. Energia edo kemen handiagoa izateko gogoz al zaude?			
9. Giharrak minduta al dituzu lane-gun buruzuri baten ondorenean?			

ZENBATEKO ADOREA DUZU?	maiz	batzuetan	gutxitan edo inoiz ez
10. Zure adinekoek zuk baino sasoi handiagoa dute zenbait eginkizunetarako?			
<b>Puntuazioa:</b> 2 puntu "Gutxitan edo inoiz ez" bakoitzeko Puntu 1 "Batzuetan" bakoitzeko 0 puntu "maiz" bakoitzeko			
<b>Energia zenbatekoa:</b> Goi mailakoa 17-20 Nahikoa 13-15 Batez bestekoa 9-12 Ohi baino txikiagoa 5-8 Energia maila baxu-baxua 0-4			

Bukatzen duzunean antzeko adore maila duen gainerako ikaskideekin elkartu. Irakasleak lagunduko dizu.

#### **ataza**

Taldetxo bakoitzean idazkari bat izendatu. Igartzen al diozue zuen energia maila antzekoa izatearen arrazoari? Elkarri jakinarazi nola erantzun diozuen galdeketari. Antzera erantzun al duzue? Hau egin ondoren, zuen artean, parekotasunik edo alderik ba ote den aztertu. Esaterako honelakoetan:

zenbat orduz egiten duzue lo?

lanean edo eskolan kementsuak eta adoretuak zareten

egindako ariketa fisikoaren neurria

jan-edanen kopurua

zaletasunak eta denbora-pasak

Adina

Indar handiagoa izan nahiko zenuke?

Nola lortuko zenuke?

Bukatutakoan, eska iezaiozue idazkariari jendearen energia maila igotzeko moduen berri eman dezala.

Ea gainerako taldetxoak bat datozen ala ez.

#### PROZEDURA:

Eztabaidan piztu ikasleen arreta osasunari buruz, sasoiaren egoteari buruz, e. a. Horretarako iragarkiak aproposak izan daitezke: janariaz, osasunaz ...

Eman ikasleei ataza egiteko orrialdea. Zenbait galdera azaldu beharko dituzu, agian.

Energia zenbateko bertsua dutenen mailak jaso eta taldetxoak bideratu.

2. ataza egiteko 20 minutu eman taldetxoei.

Atzera-elikadura (feed-back) saioa antolatu; ikasleek aholkuak eman diezazkiotela elkarri ekimen handiagokoak izateko.

## **2. Hurrenkeratze-jarduerak**

AZALPENA: eginkizun hauetarako materiala nondik jaso? Hauetatik, adibidez: lanbideak, garapen proiektuak, (balizko) ezkontidearen lanbideak, Nasako astronauten bizirauteko ataza, Artikoan bizirauteko moduak ...

PROZEDURA OROKORRA:

1. Ikasleak murgilarazi ariketa hauetan, ahoz aurkeztuz:
  - a) interesa piztuz.
  - b) hiztegia landuz.
2. Ikasleek erantzunak emango dituzte epe baten barruan.
3. Zerrendak alderatzea (adostasunera heltzea). Eztabaida aldia da garrantzitsuena.

### **2. A) Ariketa: Eureka!**

MAILAK: erdikoak eta hurrengokoak

IRAUPENA: 35 minutu.

HELBURUA: asmakizunen inguruko eztabaida piztu

GAIA: teknologia, zientzia

PRESTAKUNTZA: dena itzulikatuz agertu ikasleei asmakizunen zerrenda hau (datak kenduta, noski!):

Sutautsa 1000

Bonba atomikoa 1945

Gurpila K. A. 3000

Torlojua K. A. 200

Papera 105

Inprenta 1440

Mikroskopioa 1608

Telefonia 1876

Automobila 1885

Hegazkina 1903

PROZEDURA:

Binaka, ikasleek zehatz dezatela asmakizun bakoitzaren gutxi gorabeherako data. Ondoren, ordena ditzatela asmakizunok beren sortze-dataren arabera.

Bikoteka, zibilizazioarentzat positiboan izan ziren hirurak hauta ditzatela. Baita eragin negatiborik kaltegarriena izan dutenak ere. Alboko bikotearekin adostu ditzatela egindako aukerak. Zerrenda bakarra egingo dute.

ATZERA-ELIKADURA: talde bakoitzak berea azalduko. Ea akordio batera heldzerik badagoen.

OHARRAK: ikasleek modu anitzetan uler ditzakete “positibo” eta “negatibo” izenondoak; horrek jokoa ematen du. Utzi eurei erabakitzen.

## **2.B) Ariketa. Bidezko zigorra**

MAILAK: erdikoetatik aurreratuetara.

IRAUPENA: 35 minutu.

HELBURUA: ikasleei krimen bategatiko zigorraren egokitasunaz gogoeta eginarazi.

PRESTAKUNTZA: hemen beheko lagina fotokopiatu (eskutitza), edo argitalpenen batean bilatu zure ikasleen arabera beste idazkiren bat (eskutitza, artikulua ...).

GAIA: harremanak/ justizia

GUTUN ERAKUSGARRIA:

Biktima baten berediktua

Sexualki eraso ninduen gizonak, sei hilabeteko kartzela zigorra jasota ere, lau bakarrik beteko ditu, itxura guztien arabera. Erasoaren egunean hasi zen nire epaia. Beldur naiz oinez joateko noranahi. Berandu naizenean, itzelezko ikara izaten dute nire gurasoek. Azken aldian, lo ere txarto egin izan dut; negargura datorkit, eta, eta eraso gogoan darabilt etengabe. Gaizkileari aurre egiteko modurik ote zegoen? Zergatik ez nuen lehenago oihukatu? Are gehiago, nire errua ote zen? Atertu gabe egiten dizkiot galdera hauek neure buruari. Auto-ezarritako epailearen zigorra, sekula amaitu gabe beteko dut, bizi naizen arte. 16 urte ditut orain. Justiziaren bidegabe handizat daukadana horrek alditxartu egiten nau. Izan ere, hori bezalako jazarraldi bategatiko zigor-epai handiena bi urtekoa da, soilik.

Biziki zaila zaio ulertzea biktimaren zoritxarreko izatearen sentimendua horrelako erasorik izan ez duenari

Gutunaren kopia bat eman ikasle bakoitzari soseguz irakur dezaten. Hiztegiak eskura eduki. Esaiezu azaltzeko gutunak sortu dien zirraren nolakoa paper-zati batean, irakurritakoa gogoan. Puskak bildu eta nahastu itzazu. Ikasleak, bakoitzak paper-mutur bat hartuta, irakurri egingo du aldekoen erreakzio guztiak eztabaidatuko dituzte.

Eskatu talde bakoitzari zigorra ezartzeko emakumeak bortxatu edo erasotzen dituztenei. Taldetxo bakoitzeko ikasle bat gertu egon beharko du euren ondorioen berri emateko.

OHARRAK: ariketa honek heldutasuna eskatzen dio taldeari.

## 2. C) Ariketa. Etorkizunarekin talka

MAILAK: erdikoetatik aurrera.

IRAUPENA: 35 minutu

HELBURUA: etorkizunari begirako lehenetasunak eztabaidatzea.

PRESTAKUNTZA: prestatu ondorengo adierazpenak, kanoiaz edo kopiatuta (diktaturik, fotokopiaturik, arbelean ...)

### ETORKIZUNAREN KONTRA TALKA; ADIERAZPENAK:

2250 urterako gauza hauek egiteko aukera izango duzu:

- Zure haurraren ezaugarriak hautatu ahal izango dituzu: arraza, Inteligentzi Kozientea, sexua, altuera, pisua, e. a.
- edozein espezialistaren aholkua jasoko duzu internet bidez.
- zure pisu ideala lortuko duzu dieta-pilula eta elikadura-likidoaren bidez.
- zure bizitza luzatu ahalko duzu klinika berezietara joanda, 40 urtekoa zarenetik aurrera, urtean 2 asteko egotaldiak eginez.
- munduan zehar hegaz ibili orbita baxuko espazio-ontzi batean.
- lanik gehiago ez egiteko erabakia hartu
- etxeko ohiko lanak egiteko errobotak lortzea
- oporrak espazioan hartu ahal izatea.
- herrixketan bizi ahal izango zara, hiri handietan bizimodua gero eta arriskutsuagoa izango baita.
- ...
- ...

PROZEDURA:

Gaian murgilarazi ikasleak, galdetuta ea inoiz pentsatu duten nolakoa izango den mundua 2250eko urtearen inguruan.

Iradokizunak izan ondoren, esaiezu futurologoek egindako aurreikuspen zenbait aztertuko dituztela; horiek eta ikasleenak hurrenkeratu behar dituzte, eta desiragarrietatik beherantz antolatuko dituzte denak.

Bakarkako lanaren ondotik, hironaka zein launaka euren erantzunak konpartituko dituzte. Denek euren ikuspegia eman eta gero, munduaren martxarako kaltegarriak baino ez diren hiru aurrerakuntza aukeratu dituzte. Talde bakoitzetik, bozeramaile edo eledun batek, klaseari emango dio jardundakoaren berri.

## 2.D) Ariketa. Zubia

MAILAK: erdikoetatik aurreratuetara.

IRAUPENA: 35 min.

HELBURUA: balioak jorratzeko ataza da, ikasleek erabaki egingo dute tragedia baten aurrean banakako erantzukizuna.

PRESTAKUNTZA: fotokopiatu testua, edo kalamidade edo hondamendi, istilu, katramila ... baten gaineko beste edozein testu; ikasleen inguruarekin bat datorrena izan dadila.

#### ZUBIA ARIKETA: TESTU-LAGINA

Ezkondutako emakume gazte batek maitale batekin ibiltzea deliberatu du bakardadeari aurre egiteko, bere senarrak lanean igarotzen baitu denborarik gehiena. Senarra negozio-bidaia batean dagoela, maitalearen etxean, ibaiaren ondoan, gaua igarotzea deliberatu du; emakumearen etxea ibaiaren beste aldean dago. Senarra itzuli aurretik hurrengo goizean etxeratzeko, goizaldean, zubia gurutzatu behar du. Zoritxarrez, zubian maniako bat dago eta ez dio igarotzen utzi. Inguruan dabilen ezezagun bati laguntza eskatu dio, baina horrek diruaren truke baino ez dio lagunduko. Emakumeak sosik ez duela esanagatik, arrotzak aurretiaz ordaina jaso nahi duela agertu dio. Maitalearengana jo du orduan emakumeak, baina horrek, eskariari uko eginez, berarekin geratzeko galdea egin dio. Andrea, horrekin pozik egon ez, eta haurtzaroko lagun batengana jo du, bizilekua handik gertu baitauka. Bere lagun hori ezkongabea da, eta harengandik maitasun-proposamenak sarri jaso ditu baina “ni zurekin ja-jai” erantzun dio beti. Egoeraren berri eman dio eta laguntza eskatu dio. Donadoak esan dio ez diola lagunduko berarekin guztiz atsekabertuta dagoela-eta. Emakumeak deliberatu du zubia bere kontura igarotzen saiatu behar dela. Maniakoak hil egin du.

Jende hauetatik zein dira erantzukizun handiena dutenak? Emazteak, senarrak, maitaleak, arrotzak, haurtzaroko lagunak ala maniakoak?

### **3. Produktuari begirako eginkizuna**

Ikasleek elkarlanean jarraibide zenbait kasu egingo diete denbora-tarte baten barnean. Hizkuntza era sortzailean erabiliko dute. Ataza ondoko jardueretan, lanaren prozedurari buruz arituko dira ikasleak.

#### **3.A) Zure astia planifikatu**

MAILAK: erdikoetatik aurrera.

IRAUPENA: 35 min.

HELBURUA: ikasleek kontsideratzea nola jorra dezaketen hizkuntza ikasgelatik kanpo.

PRESTAKUNTZA: jarraian datorren ataza egiteko orria fotokopiatzea.

PROZEDURA:

Ikasleen interesa piztu planifikatzeko eginkizunean murgil dadin.

Binaka lan egingo dute ikasleek. 5-10 minutu izango dituzte iradokizunen zerrenda eztabaidatu, emendatu edo moldatzeko.

Hasierako eztabaida bukatuta, taldeka bil daitezten lagundu. Ikasleei 20 minutu utzi plangintza egiteko.

Elkarretaratze saioan, taldetxoek, zeinek bere iradokizunak jalkiko dituzte.

**ZURE ASTIA PLANIFIKATU: ATAZA EGITEKO ORRIA.**

Hona jendeak darabiltzan teknika zenbait xede-hizkuntza lantzeko ikasge-  
latik kanpo:

hitz-zerrenda bat gogoan hartzea.

gramatika-liburu bat irakurtzea.

ariketa gramatikalak egitea.

euskarazko aldizkari edo libururen bat irakurtzea.

klaseko ohar-koaderno berridaztea eta osotzea.

Idatzitako lanaren akatsak zuzentzea.

Ikasliburuko hurrengo ikasgaia prestatzea

...

Zure ikaskide batekin lanean jardun. Elkarri esaiozue zein iruditu zaizki-  
zuen lagungarri, hala izatekotan; ondoren, klaseari jakinarazi zuek gaine-  
ratutako besteak.

... Taldetxoetan arituz, hautatu ondokoetariko denbora-tarte bat:

5 minutuko tarte asteen sei egunetan

eguneko ordu bat astero 5 egunetan

eguneko bi ordu asteen lau egunetan.

... Zure taldetxoan, programa bat jarri azalduz zelan landu euskara eskola  
orduetatik kanpo. Aurreko zerrenda baliatu, edo bururatzen zaizun bes-  
telako edozein ideia erabili. Talde bakoitzean hautatu pertsona bat, zuen  
plangintza klaseko gainerakoei agertzeko.

**4. Role-play  
ariketak**

**4.A) Jende ospetsua. Role-teknika ezagutarazteko ariketa**

Igartzeko jokia da; ikasleek jende famatuaren roletan jardungo dute.

MAILAK: oinarrizkoetatik aurrera.

IRAUPENA: 20 min.

HELBURUA: ikasleak role-play delakoaren ideiaz jabetzea. Horren ikus-  
pegi ludikoa ikusaraztea haiwei.

HIZKUNTZA: galderak, lehen aldi bukatua eta puntukaria.

FUNTZIOAK: gertakariei eta lorpen pertsonalei buruz hitz egitea.

ANTOLAKUNTZA: klase osoa (talde handi zein txikiekin)

PRESTAKUNTZA: (euskal) pertsonaia famatu eta egokien zerrenda izatea,  
zure taldea horien faltan legokeelako kasurako.

PROZEDURA:

Ikasle bakoitzak pertsonaia famatu bat aukeratzen du, bizirik zein hilda  
dagoena –beharbada klaseko aukerak kontsentsuz adostu beharko lira-

teke lehenik. Zeinek bere hautua isilpean eduki, eta horretaz gogoeta egingo dute, eta beraz lehen pertsonan hitz egin ahal izango dutelako bermea lortu behar dute.

(Aukerakoa). Jolasaren erakusgarri, pertsonaia famatu bat aukera dezakezu; ikasleei galdezka aritzeko eskatu, eta erantzun izeaiezu lehen pertsona erabiliz.

Eskatu “Pertsonaia famatua den boluntario bati, klasearen aurrera irteteko.

Azaldu klaseari nolako galderak egin beharko lituzketen:

- Zein da egin duzun gauzarik garrantzitsuena?*
- Zure bizitza publikoak eragiten ote dio zure bizitza pribatuari?*
- Zure bizitzako zein gertakari izan da esanguratsuena?*
- Jaso zenuen heziketak hainbesteko lorpen egiten lagundu al dizu?*
- ...

Galderen konplexutasuna klasearen mailaren araberakoa izango da. Utzi ikasleei zenbait minutu galderak presta ditzaten.

Ikasleek galderak prestatzen dituzten bitartean, azaldu lehen boluntarioari erantzun anbiguoak; adibidez, zalantzarria izango zaie ikasleei, Pasteur edo Fleming, Ghandi edo Thatcher, Hepburn edo Bergman den boluntarioa hasieran.

Azpimarratu galderak egin beharrekoak direla, eta, horrela, ez da igarki-zun-jolas huts bilakatuko.

Pertsonaiaren nortasunari buruzko ideia bat dutenean, esaiezu paper-txatal batean idazteko eta zeuri emateko. Horrela jokoa ez da azkarregi bukatuko.

Pasatu dizkizutenean erantzun-txatal kopuru nahikoa, jolasa eten, eta esan zein izan den zuzen igarri duen lehen ikaslea.

Jolasa beste “pertsonaia famatu” boluntario batekin errepikatu daiteke. Hizkuntza-laborearen ere egin daiteke, denek denei galdetuz.

Ariketaren jarraipena: bi modutan.

Eztabaida. Taldetxotan erabaki dezatela:

- Zerk egin du asmaeraza pertsonaia?*
- Zerk egin du eginkizun hori zaila?*
- Zer nolako keinu eta jarrera gaineratu zitezkeen?...*

b. Idazlana. Esan ikasleei aukeratutako pertsonaiaren baten biografia idazteko, edo berorien bizitzako pasarte bat.

ALDAERA:

Egitura zehatzagoak: horiek lantzeko erabil daitezke joko hau, adibidez:

Zaletasun eta nazkei (dislikes) buruz hitz egin:

*“Zein margolari/jaki/pertsona ... duzu gogokoen/ gutxien gogoko?”*

ETORKIZUNERAKO PLANEZ:

“–Nora joango zinateke oporretan?  
–Zelan hobetuko zenituzke zure inguruko hiritarrak?  
–Noiz erretiratuko zinateke bizitza publikotik?...”

c. Baldintza lantzeko:

“–Diruzorro bat behearen gainean aurkituz gero, zer egingo zenuke?  
–Oporrak bazenitu, nolakoak aukeratuko zenituzke?  
–Etxalde bat bazenu, zer landatuko zenuke?  
–Arratsaldean kaleratuko bazina, zer egingo zenuke?  
–Jatetxe batera joatekotan, nolakoa hautatuko zenuke?  
–Liburu bat, nolakoa idatziko zenuke?  
–...”

Galdera hauek guztiak pertsonaia bakarrari egingo litzaizkioke; eman dezagun Mao Tse Tung dela erantzuten duenaren pertsonaia; ihardesleak irudimena eta sormena baliatu beharko lituzke.

ALDAERA:

Enbaxadoreena: talde bakoitzak (5 pertsona), pertsonaia ospetsu bat irudikatuko duen euretariako bat aukeratu, zehaztu bitza bere ezaugarriak eta bihoa beste taldeetara. Nor den igarritz gero taldetxoan geratuko da enbaxadorea; horrela, enbaxadorea galdutako taldeak beste bat hautatu beharko du. Jolasa, taldetxo bat deuseztatutakoan bukatuko da, edo guztiz murriztuta dagoenean, bestela. Zenbat eta taldetxo gehiago, hobe.

ALDAERA:

Bizitza dramatikoak. Bi atal joko honek: mimoa/mintzasaioa. Bizitza dramatikoa izan duten pertsonaiak gogoratzeko eskatu taldeari. Adibidetzat, batzuk eraman klasera: Archimedes, Kennedy, Mari Callas, Mata Hari, Isaac Newton ... Galderak –mintza-saioa– hasierako jokoan (edo 1. aldaeran) bezala egingo dira. Ebaluazio positiboa erabili, batez ere boluntario uzkurrenekin.

ALDAERA.

Lanbideak. Aurreko jolas guztiak erabil daitezke lanbideak pertsonaien orde zarrira... Paper-txatalak banatu diezazkiekezu ikasleei lanbideen izenarekin.

## **5. Jendearen ideiak pizteko jarduerak**

### **5.A) Auzotar, ez litzaizuke axola ...?**

Ikasleek euren auzokoei kexatu egiten zaizkie gogaitarazten eta ernegarazten ari baitzaizkie.

MAILAK: erdikoetatik aurrerakoak.

IRAUPENA: 15 min.

HELBURUA: role-play bat eskaintzea ikasleei behar besteko jarioasuna izateko erraztasunak emanda.

Hizkera eta funtzioak: eskabide gizabidetsuak, barkamen eskeak eta iradokizunak.

ANTOLAKUNTZA: binaka/hirunaka.

PRESTAKUNTZA: txartel zenbait prestatu, klase erdirako A letraz markatuta, eta beste erdirako B letraz markatutakoak.

GAIA: harremanak, hiria, etxea

AURRE-BEROKETA:

Testutxo hau irakurri Britainiako etxebizitzetako auzotarrei buruzko jarrerrez. Ba al dago alderik Britainiakoen jarrerren eta zuen herrialdekoenen artean? Eta ikasleen banakako ezberdintasunak edo bereizgarririk?

#### BRITAINIAKO AUZOTARREN JARREREZ

Ia inkestatuen erdiek, izenez, beren hamaika auzotar edo gehiago ezagutzen dituzte. Laurdenek 20tik gora ezagutzen dituzte.

Lagineko gehienek beren auzokoez uste edo iritzi ona dute. Hamarretik bederatzik, auzoa adiskidetsua dela deritzote. Ehuneko 5ek soilik uste du sudurluzea eta kuxkuxeroa dela.%3k harropuzak eta snob-ak deritze auzokoei.

Helduen %86k joan deneko urtean zerbait egin dute auzotarren bati laguntzeko. Batzuek era bateko edo besteko mesedeak egin dituzte.

Setik 1ek dio azken bi urteotan arazoren bat izan dutela. Gainerakoek kezu bat ere ez dute izan.

Setik 3k hitz egiten du egunean behin auzotarrekin. 10etik 1ek soilik dio auzotarren batekin hitz egiten duela astean behin.

PROZEDURA:

zure ikasleengandik jaso eta jarri arbelean, zure auzokoari kexua adierazteko dukezun edozein arrazoi: jaiak, irrati ozenak, eta brikolaje-zaleak direla-eta; guztiarekin ere, ikasleak bultzatuko ditugu bestelako arrazoi zenbait birgogora ditzaten.

Klasea banatu bikoteetan. A eta B ikasleak.

Bikote bakoitzari esan arbeleko aukera bat hartzeko.

Klasean ibili eginkizuna txiri-txiri doala ikusteko

Egoera bat bukatutakoan, beste bati ekin diezaiokete.

JARRAIPENAK:

Jarraipena: Klase osoarekin lan eginez, auzoko onen arau-zerrenda balizko batez galdetu; hau da, zer egin beharko lukeen jendeak eta zer ez. Zerrenda bat jarri arbelean, eta hasi eztabaida.

JARRAIPENA: Esan ikasleei kexu-gutuna idazteko egoerak ez badu hobera egin astebete edo igarota.

### A ROL-TXARTELA

Gizabidez kexa zaitez. Eman arrazoiak adieraziz oso garrantzitsua dela zu ernegarazia ez izatea, esaterako, lo egin behar duzulako goiz jaiki behar baituzu egunero; edo ondoezik baitzaude; zeure musika ezin baituzu entzun, e. a. Gizabidetsu eta adiskidetsu iraun, zure auzotarrak laguntzeko trazarik ez badu.

### B ROL-TXARTELA

Barkamena eskatu zure auzotarrari gogait eraztegatik. Azaldu iezaiozu, edozer delarik ere, zergatik ezin diozun utzi egiten ari zarenari. Iradokizunak egin zure auzokoari laguntzeko, adibidez, ez-entzuteko belarritakoak aipatu, gelak soinuetatik babestea aholkatu...; eskaiozu ospakizunera etortzeko, bere ohiturak moldatzeko eskatu. Gizabidetsu eta lagunkoi agertu zaitez, baina ez amorerik eman zure ohiturak aldatzeari dagokionean.

#### B.1. Role-play funtzionalak

Aurreko jardueran oinarriturik, hona bestelako aplikazio batzuk.

MAILAK: oinarrizkoetatik gorakoak.

IRAUPENA: 15 minutu.

HELBURUA: ikasleen erantzunak garatzea egoera bakunetan.

ANTOLAKUNTZA: binaka edo hiruak

PRESTAKUNTZA: rolak zehazteko txartelak prestatu beharko dituzu. Gatazka elementu bat txertatu.

AURRETIKO BEROKETA: inolakorik ez; maizenean aurreko klaseko lanarekin lotuta egingo ditugu.

(ikus egokiak diren zure klaseetarako)

#### **5.B) Kazetariaren ikerketa**

Ikasleek greba bati buruzkoak irakurri eta irudikatu dezatela greban dagoen pertsonaia bat kazetari batek galdekatzen duenean.

MAILAK: erdikoetatik aurrera.

IRAUPENA: 40 minutu

HELBURUA: ikasleak bultzatzea irakurri duten eta oharretan laburtu duten informazioa erabilia ahoz bat-batean jardutera.

HIZKUNTZA: funtzioak; galderak egitea, aldarrikapenak adieraztea.

HIZTEGIA: lana eta grebak.

ANTOLAKUNTZA: binaka edo hiruak

PRESTAKUNTZA: bizpahiru egunkari/aldizkari/webgunetako artikuluak beharko dituzu.

GAIA: lana, harremanak

AURREKO LANA: ideia-jasa bat egin klasean galdetuz ikasleei zergatik egiten duten greba pertsonak. Arrazoien zerrenda jarri arbelean, gero erabil ditzagun ariketa nagusian.

PROZEDURA:

1. Ikasleak binaka edo hirunaka banatu.
2. Artikulu diferenteak banatu, informazio ale beste ikasleri.
3. Eskaezu irakurtzeko eta oharrak jasotzeko (agian, etxeko lan gisa).
4. (aukeran) taldeari galdetu zeintzuk diren ariketan beharko dituzten galdera motak, bai kazetariarenak:
  - *Grebak zenbat iraungo du?*
  - *Zer eskatzen duzue?*
  - *Ba al dago onartzeko prest zaudeten gutxienezkorik?*

Eta baita grebalariarenak ere:

- *Nahi duguna zera da: ...*
  - *Ezin dugu onartu ...*
  - *Negoiazio mahiaren bileraren ondotik...*
5. Eska iezaiezu ikasleri/ei, informazioetan jokatzeko greban murgilduta dagoen pertsonaiaren baten papera haren berri irakurri baitute. Beste bat/batzuk kazetariarena jokatuko dute.

JARRAIPENA:

Klasea bere osotasunean eztabaidan hasiko da. Nork egiten du greba? Zergatik? Zenbat iraun ohi dute? Nork jasaten ditu ondorioak gehien? Modu eraginkorra al dira langileek nahi dutena lortzeko? Talde txiki-tan puntuok eztabaida ditzakete, eta gero talde nagusiak ondorioen berri izango du.

OHARRAK:

1. Prozeduraren laugarren puntutik aurrera, ikasleek euren artikuluak ostenduko dituzte –ez da komeni ibiltzea artikuluak irakurri eta irakurri informazioa bila; inolako informazioa faltan badute, asma dezatela
2. Artikuluen luzerak diferenteak izan daitezke, luzeena ikasle aurrera-tuagoari eman.
3. Jarduera hau behin eta berriz egin daiteke, edukia bakoitzean ezberdina izanik.

ALDAERAK.

Beste zenbait gai ere erabili litezke, gaiarekin lotutako artikuluak baliatuz gero: film zuzendariak filmen bat egiteaz aritzeko; kartzelako-jagoleak espetxearen baldintzez aritzeko; ikasleak campuseko euren eskakizunez aritzeko; eskolako tutoreek eskolako istiluez aritzeko...

MATERIALA: bizpahiru artikuluko orriaren alde bateko luzerakoak gehie-  
nez, greba edo bestelako kinka batez dihardutenak, mass-medietatik  
atereak.

### **5.C) Eztabaida: zooak ankerrak ote?**

Ikasleek ikuspuntu desberdinak adierazteko artikuluko zenbait irakurriko  
dituzte, eta bertako iritziak eurenganatuko dituzte haiekin bat baletoz  
bezala sortuko dugun eztabaida baten barruan.

MAILA: erdikoetatik aurrerakoak

IRAUPENA: 30 minutu

HELBURUA: eurena ez den ikusmolde bat era koherentean azaltzea ikas-  
leek. Bat-bateko eztabaida baterako esparrua zehaztea.

HIZKUNTZAREN FUNTZIOAK: ados agertzea, desadostasuna adieraztea,  
iritzia ematea.

ANTOLAKUNTZA: 3-5 ikasleko taldeak

PRESTAKUNTZA: bi testu fotokopiatzea; hoberena aditu birena, euren  
kurrikulua agertzen bada, hobe.

AURREKO BEROKETA: erakutsiozu klaseari kaiolatutako eta basoan dabilen  
abere banaren argazkiak. Bat-bateko erantzunak elizitatu ikasleengandik  
eta galdetu honelako itaunak:

- *Inoiz egon zara zoo batean?*
- *Zooak onesten al dituzu?*
- *Pasadizorik ba al duzu honetaz, ala zure jarrera aldezteko beste-  
lako auturik?*

PROZEDURA:

1. Taldekatu ikasleak kopuruaren arabera. Ondoan hiruak: A  
mintzalaria, B mintzalaria eta gai-jartzailea. A eta B mintzalariak  
bikoiztu egin litezke.
2. Bi pertsonaiaren ikusmolde autobiografikoak banatu; adibidez, A-ri  
zooen aldeko zoologoaren aldeko artikulua eta, B-ri animaliak oiha-  
nean bizitzearen aldeko aktorearena. Gai-jartzaileak bi biak iraku-  
rriko ditu eztabaida gidatzeko gaitasuna izateko.
3. A eta B-ri eskatu testu bakoitzeko xehetasun biografikoak irakurri, eta  
eurekin identifikatzeko eskatu.
4. Gai-jartzailea prestatu ezazu solaskideak aurkez ditzan eta artiku-  
luetako eztabaidak puntuz-puntu egin dezan aurrera. Ohiturarik ez  
badute horrelakoetarako, ikasle bakoitzak bere ikusmoldea azal  
dezala eta horrela eztabaida berez sortuko litzateke.
5. Bukatzeko ohar-txatal bat eman gai-jartzaileari denbora-muga hurbil  
dagoela adieraziz eta bukatu behar dela.

JARRAIPENA I:

Eztabaida hasi galdera hauek eginez:

- *Inork bere iritzia aldatu al du eztabaidaren indarrez?*
- *Norbaiten argudiaketa aipatzeko modukoa izan al da? Zein?*

JARRAIPENA II:

Ikasleek taldeka eginkizun hau jorratuko dute:

Diseinatu behar dute Afrikako bizitza basatiko parke bat non abereak euren habitat naturalean behatu ahal izango diren.

ALDAERAK:

Beste zenbait gai: Auto-stopa arriskutsua al da? Pelikula/liburu bat; eraikuntza berri bat...

Gai sinpleago bat ahotan hartuta antzeko eztabaidak sor daitezke. Adibidez iritzi kontrajarriko gutunak jaso daitezke zuzendariarentzako gutunen ataletatik. "Administrazioa euskaraz" aldizkariko "Debate edo iritzi bilketak" ere ustiatu daitezke. Argiako Larrun gehigarritik akaso, blogetatik, Sustatu posta zerrendatik...

## **Bibliografia**

Nolasco, R. eta L. Arthur. 1987. *Conversation*.  
Oxford University Press.